



URIBEREN ETA URDANGARINEN 'INTERNET KAFE'

Idazleak eta musikariak elkarlanean burutu duten azken lana aurkeztuko dute Tolosan, Topic-en, bihar 20:30ean 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-03-04

VIII. URTEA 1943. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Aranburu jauregiak ateak zabaldu dizkio 'Aurrez aurre' erakusketari

TOLOSA Artea gustuko duten horiei ez ezik, erakusketa herritar orori dago zuzendua antolatzaileen esanetan

EMAKUMEA Arte munduan ere «baztertua» dagoenez, euren lanak erakusketako toki bat eskaini nahi izan diote 4



Eli Garmendia ezkerrean, Irene Larraza eserita, Onintza Lasa zutik eta Josebe Iturrioz eskuinean. ESTI EZEIZA

Ahoz Aho Jaialdiari etzi emango diote hasiera Tolosan

KULTURA Memoria historikoa da ardatza; emanaldiak hainbat herritan eskainiko dituzte 2

Nagore Arozenak Kutxa Sariaren finala jokatu du etzi Beotibarren

LIZARTZA Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako azken jardunaldia 18:00etan hasiko da. 6

VII. Aiztondo Klasikoa Zizurkildik irten eta Asteasun amaituko da

TXIRRINDULARITZA Proba hilaren 7an lehiatuko dute eta Espainiako Koparako puntuagarria izango da 5



HITZAK **bi sarrera** pare ditu

**AKABA BERA BERA
MAR ALICANTE**

eskubaloit partidarako
Martxoak 6 • Larunbata • 19:00etan
Donostiako Bidebieta kiroldegian

HITZAK **sarrera** pare bat du

**LAGUN ARO GBC
LUCENTUM ALICANTE**

saskibaloit partidarako
Martxoak 7 • Igandea • 19:00ean Donostiako Ilunben

sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu 943-65 56 95 telefono zenbakira

TXOKOA hitza

Hainbat kulturetako kontalariak entzungai Ahoz Aho Jaialdian

Kultura » Memoria historikoa da Jaialdiaren ardatza; eskualdean Tolosan, Villabonan eta Adunan izango dira emanaldiak.

IMANOL GARCIA

Memoria historikoa ardatz bezala hartuta eta ahozkotasanun memoriaren isla bezala duen garrantzia gogoratu, III. Ahoz Aho Nazioarteko Jaialdia antolatu du Asvinea elkarteak, hainbat kulturetako kontalariekin. «Elx-eko La Caratula elkarteak antolatzen duen jaialdiarekin bat egiten du. Guk Euskal Herrira ekartzen ditugu eta hemengo talde batzuk ere mugitzen ditugu», azaltzen dute antolatzaileek. «Eta euskaldun batzuk ere Espainian zehar aritzen dira emanaldiak egiten». Aurten, Tolosaldean eta Ordizian egiteaz gain, Andoainean ere izango dira ikuskitzuna.

Emanaldiak batez ere hurrengo astean izango dira, hilaren 11tik 14ra, baina etzi izango da lehen saioa. Aurteneko aldiz kalera aterako da Jaialdia, Tolosako Triangulo plazan izango baita ikuskitzuna. Aurten lehenengo aldiz ere gazteentzako emanaldia antolatu dute Asvineakoek. «Hor badago adin tarte bat, nerabeena, gauza



lazio Ahoz Aho Jaialdian San Esteban auzoan egindako saioetako bat. E. EZEIZA

gutxi antolatzen direnak beraien-tzako», diote antolatzaileek. «Horregatik pentsatu dugu hip-hoparekin lotuta emanaldia antolatzea, ahozkotasanarekin erabat lotuta dagoena». Aritz Sound Sistem, Maisha MC eta Invert ariko dira inprobisazioak egiten.

Adin guztientzat

Hainbat euskal kontalari izango dira Jaialdian. Ixabel Millet Nafarroatik, Kandelen Argipean Bizkaitik eta Iñaki Carretero Arabatik. Horiez gain, beste hainbat herrialde eta kulturetako kontalariak izango dira Ahoz Ahoz. Esaterako, Mercedes Carrion perutarrik ipuinak kontatzeaz gain magia ere egingo du. «Ipuinak bere ahotik, fi-

sikoki, azaltzen direla dio», esaten dute antolatzaileek. Ana Griot filologoa da eta pare bat liburu idatzi ditu. Jerman Argueta mexikarrak Mexiko D.F.ko errito eta kondairak ekarriko ditu. Jhon Ardilak gitarra jo ohi du, inprobisatzen, trobalarari moduan. Mariano Martinez valentziarrak oso goxo kontatzen du eta asko konektatzen du entzulegoarekin.

Aurten gala Asvinean bertan egingo da. Jaialdiko artistek parte hartuko dute eta artista bakoitzak bi minutuko saioa egingo du. «Gero nahi duena taula gainera igoko da, inprobisazioak egitera... Saio irekia izango da, ekitaldi informala». Emanaldi berezia ere izango da Gabino Diegoren esku-

tik. Tolosako Udalak antolatutako ekitaldia da, baina Jaialdiaren baitan sartzea proposatu zuten eta egitarauan egongo da. Gala eta Gabino Diegoren saioa izango dira ordaindu behar direnak. Beste saio guztiak dohainik izango dira.

Adin guztiei zuzendutako emanaldiak daude. «Gure planteamendua haurrak heldu batekin joatea da», diote Asvineatik. «Pentsatu ohi da ipuinak haurrentzako direla bakarrik, baina hori ez da horrela. Gure apustua da helduak ere ahozkotasanera gerturatzea eta horregatik interesgarria iruditzen zaigu haurrekin batera joatea». Batez ere helduei zuzendutakoak San Esteban auzokoak eta gaueko saioak izango dira.

» EGITARAUA

Etzi, hilak 6

■ **Kandelen Argipean.** 'El oraculo de los cuentos', Tolosako Triangulo plazan, 11:30etik 13:00etara.

Hilak 11, osteguna

■ **Ana Griot eta Jhon Ardila.** Madriletik eta Kolonbiatik datoz. Emanaldia Tolosako Helduen Heziketa Iraunkorren zentroan izango da, 16:00etan.

■ **Iñaki Carretero.** Amarotzen, 18:00etan, euskaraz.

■ **Mercedes Carrion eta Jerman Argueta.** Perutik eta Mexikotik datoz. Emanaldia Tolosako San Esteban auzoan, 19:30ean.

Hilak 12, ostirala

■ **Ixabel Millet.** Saioa Amarotzen izango da, 18:00etan, euskaraz.

■ **Gabino Diego.** Tolosako Leidor aretoan, 20:30ean.

■ **Mariano Martinez.** Villabonako Obaba tabernan, 23:00etan.

Hilak 13, larunbata

■ **Kandelen Argipean.** Saioa Tolosako Bonberenean izango da, 11:30ean, euskaraz.

■ **Aritz Sound Sistem, Maisha MC eta Invert.** 'Ahoz-aHIP Ahoz-aHOP', 18:00etan, Tolosako Kultur Etxean.

■ **Ana Griot eta Jhon Ardila.** Madriletik eta Kolonbiatik datoz. Saioa Tolosako San Esteban auzoan izango da, 19:30ean.

■ **Ipuin Motxen Gala.** Asvinean, Adunan, 22:30ean.

Hilak 14, igandea

■ **Iñaki Carretero.** Saioa Tolosako Bonberenean izango da, 11:30ean.

Aukeratu ipuin bat etorkizuna ezagutzeko

Kultura » Kandelen Argipean taldeko Anabel Murok egingo du jaialdiko lehen emanaldia, etzi Triangulo plazan.

I. GARCIA

Ahoz Aho Jaialdiari hasiera Kandelen Argipean taldeak emanango dio. Bertako Anabel Murok *El oraculo de los cuentos* (Ipuinen orakulu) saioa eskainiko du etzi, Triangulo plazan, 11:30etik 13:00etara, gazteelaz. Ezohiko ipuin kontaketa izango da. Mahai batean eserita egongo da Muro eta entzulegotik pertsona baten parte hartzea eskatuko du. «Parte-hartzaileak bere buruari galdera bat egingo dio, etorkizunari buruz», azaltzen du ipuin kontalariak. «Ez du ozenki esan beharrik, beretzako da galdera. Ondoren ipuin kutxatik ipuin bat aukeratu behar du eta nik ipuin hori kontatuko diot berari

eta publiko guztia. Aukeratu duen ipuinak bere galderari erantzungo dio. Ipuina oso zabala izaten da: anekdotatik begiratu dezakezu, baina zuhaitz batek bezala sustrai sakonagoak ditu. Beraz, hainbat aurpegi ditu ipuin batek, alde batetik ez bada, beste alde batetik erantzungo dizu».

Ipuin-kontalariak gogoratzen du betidanik gizakiak orakuluak erabili dituela: «I Ching edo Delfos-eko orakuluak, gaur egun hori buruan hartuta sortu zuen emanaldia. Behin baino gehiagotan, parte-hartzaileak azaldu izan dio galderari erantzun egin diola ipuinak. Ipuin kaxan alde batetik haurrentzako ipuinak eta bestetik helduentzako ipuinak jartzen ditu. Halere, Murok azaltzen duenez, «haurrei zailagoa egiten zaie galdera bat pentsatzea etorkizunera begira, orainaldian gehiago bizi direlako. Horregatik pixka bat laguntzen diet galdera egiterakoan,

horts bat eroriko zaión edo oporretan leku batera joango den, horrelako galderak eginez».

Asko gustatzen zaio Murori *El oraculo de los cuentos* saioa, «kalearekin lotura duelako. Askotan egin dut kalean eta ipuinak kontatzea kalean betidanik asko gustatu izan zaib». Adin guztiei zuzendutako saioa da, eta kontalariak dioenez oso pertsonala da ipuina kontatzeke modua: «Nik parte-hartzaileari kontatzen diot, berarentzako da, baina gero inguruan dagoen jendeak ere entzuten du, noski. Ni gainera ezberdin sentitzen naiz, beste modu batera kontatzen dizkiot pertsona horri ipuinak, kalean egon ala kultur etxe batean egon».

Esan bezala, parte-hartzaileak kontalariarekin batera esertzen da mahai baten inguruan. «Parean jartzen gara, elkar ikusi ahal izateko», dio Murok. «Izan ere, ipuin-kontaketaren gauzarik garrantzitsuenetakoa begirada da».



Anabel Muro ipuin-kontalaria. HITZA



Kirmen Uribe idazlea, Mikel Urdangarin musikaria eta Nika Bitxiavili biolin-jotzailea *Internet kafe* saio batean. HITZA

Mezu elektronikoak oinarri hartuta sorturiko poesia

Kultura » Mikel Urdangarin musikariak eta Kirmen Uribe idazleak 'Internet kafe' aurkeztuko dute, bihar, Topic-en.

INIGO TERRADILLOS

Kirmen Uribe idazlea eta Mikel Urdangarin musikaria *Internet kafe* izeneko lanarekin aritu dira azken bi urteetan, herriz herri poesia eta musika uztartzuz eszenatokitian. Tolosan izango dira bihar, Topic-en, 20:30ean, eta emanaldi berezi honetaz gozatzeko azken aukeretakoa izango da, Bilbon izango den hurrengo saioarekin amaituko baitute proiektua.

Musikaria eta idazle bizkaitarren arteko hirugarren egitasmoa da *Internet Kafe. Bar Puerto* izan

» DATUAK

- **Ikuskizuna.** *Internet kafe.*
- **Egileak.** Kirmen Uribe idazlea eta Mikel Urdangarin musikaria. Nika Bitxiavili biolin-jotzaileak ere parte hartzen du musikarekin.
- **Noiz eta non.** Bihar, 20:30ean, Topic Txotxongiloen Nazioarteko Zentroan.
- **Sarrerak.** 10 euro. Topic-eko leihatilan.

zen lehena, eta ondoren etorri zen *Zaharregia, txikiegia agian*. Azken honek izan zuen arrakastaren ondorekin sortu zuten *Internet kafe*. Urdangarin eta Uribe musikaria eta poesia erabiltzen dute istorio bat kontatzeko, era soil eta xumean, baina umorez zipiritinduta. Hori guztia, elkarriz bidalitako mezu elektronikoetan oinarrituta egiten

dute. Gogoetak trukatzeko mezu horietan, gertaerak, eginko bidaien inguruko iruzkinak eta egoera pertsonalak. Halaber, mezuak batera, kantak eta poemak ere bidaltzen dizkiote elkarriz.

Lou Reed, Tom Waits edota Mikel Laboa

Eguneroko hizkera eta literatura elkartzeko dira ikuskizunean. Presa handiz eta arreta gutxiz idatzitako oharrekin batera, poema landuak. Kantetan, ordea, omenaldia egiten diete euren musikaririk gogokoenen: Lou Reed eta Tom Waitsen bertsoak dira, besteak beste. Horrekin batera, kanta berrien zirriborroak edo Euskal Herriko abesti tradizionalak dira. Nika Bitxiavili biolin-jotzailea ere lagun izango du bikoteak Topic-eko eszenatikian.

«Oso saio biluzia da; zuzeneko harremana sortzen da ikusleekin»

MIKEL URDANGARIN » Musikaria

Musika » Ekitaldi baterako bereziki sorturiko ekimena izan zen 'Internet kafe'; hartu zuen indarra ikusita jarraitzea erabaki zuten.

I. TERRADILLOS

Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe elkarriz idatzi dizkioten mezu elektronikoak irakurriko dituzte bihar *Internet kafe* emanaldian. Mezu horiek errealak edo saiorko asmatuak dira, eta irakurraldi bakoitzarentzat moldaturiko abestiek osatuko dituzte. Proiektua «oso polita» dela, eta «ederki» pasa dutela azken bi urteetan azaldu du Urdangarin.

Zer da bihar Topic-en ikusi ahalako dena?

Gure posta elektronikoaren bitartez osatzen den istorioa da. Bi lagun dira. Bata hemen dago, Euskal Herrian, eta bestea, berri, atzerrian. Bi pertsonaia izaera pixkanaka margotuz joango da e-mailen bitartez, eta horietan atxikirik doazuen poema eta kantuekin. Bidaia moduko bat da, elkarriz idatzen dizkioten mezuen bitartez.

Nondik sortu zen proiektu honi ekiteko ideia?

Gutun Zuria jaialdiko antolatzaileek gutunaren inguruko emanaldi bat egiteko eskatu ziguten. Guk, berez, sasoi hartan ez genuen elkarriz ezer egiteko helbururik, izan ere, *Zaharregia, txikiegia agian* proiektua bukatu berri ginen, eta ez genuen ezer buruan. Orduan, haiek eskatuta, hasierako *Internet kafe* egin genuen, eta konturatu ginen indarra izan zezakee-

lahark proiektu bezala, beraz, asko gustatu zitzaigunez eta lehenengoak harrera ona izan zuelako aurrera jarraitzea erabaki genuen. Eta azkenean bi urte egingo ditugulan honekin.

Zer moduz joan dira bi urte hauek?

Oso emanaldi politak izan dira, eta ederki pasa dugu. Oso biluzia da taula gainean gertatzen dena, oso zuzena. Biluztasun horrek ondo funtzionatzen badu zuzeneko harremana sortzen da ikusleekin, eta hori nabaritu dugu. Planteatzen dugun bidaia emozio aldetik ere oso aberatsa da.

Bidaia horretan poesia dago bate-tik, eta bestetik musika. Baina ez ditugu zure abestiak topatuko.

Oso argi nuen nire kanturik ez nuela erabili nahi. Hori bai, badaude emanaldirako bereziki eginko abestiak. Gainerakoak, moldaketak dira, Tom Waits, Lou Reed edota Mikel Laborenak, esaterako. Guk entzun eta gustatzen zaigun musika sartu dugu. Emanaldiaren soinuan baina Nika Bitxiavili biolin-jotzaileak ere parte hartzen du, eta oso garrantzitsua da bere papera. Gure e-mail eta poesiaren irakurraldiekin oso lotuta dago musika.

Proiektu hau bukatzeaz dago. Hurrengo buruan al duzu?

Tolosakoa eta gero Bilbon izango dugu hurrengo emanaldia eta ziurrenik horrekin amaituko da *Internet kafe*. Gero atsendaldiz txiki baten ostean, udaberriaren kontzertuekin hasiko naiz, Euskal Herriko kampa, gainera. Aurrerabegira, badut buruan dantzarekin loturiko beste proiektu bat ere.

Laburrak

Mendi irteera antolatu du Oargik astebururako

MENDIA » Bihartik igandera bitarte Castillo de Achert eta Chipeta Altor irteera antolatu du Oargi mendia elkarteak. Bihar abiatuko dira Siresako Aterpera, eta etzi Castillo de Achert (2.384 m.) igoko dute. Etziko gaua Siresako aterpean pasako dute. Igandean, berri, Chipeta Alto (2.175 m.) mendia igoko dute. Irteera honetarako izena eman nahi duenak 688 698 642 zenbakira deitu beharko du, 19:00etatik aurrera edo info@oargi.org era idatzi, eta 20 euro ordaindu beharko du Euskadiko Kulturaren 30350028110281141038 kontuan edo elkartearen. Neguko materiala beharrezkoa izango da.

Tolosako Frantsesetako ikasle ohien bazkaria

GIZARTEA » Maritxu Txapartegik eta Kristina Martijak Frantsesetan ari tutako ikaskideei bazkari batera dei egiten diete. Apirilaren 24an izango da, Fronton jatetxean. Apirilaren 12a baino lehen 50 euro sartu beharko dira 2101 008112 0126383413 kontu korrontean.

Pello Odriozolaren aldeko elkarretaratzea, gaur

POLITIKA » Hileko lehen ostegunero bezala, gaur elkarretaratzea deitu du Lizardi elkarteak Pello Odriozola bazkidea aska dezatela exijitze-ko. 19:30ean izango da Plaza Zaharrean.

Martxoko zine bonuak salgai, hilaren 11ra arte

ZINEMA » Martxo osorako zinema bonuak erosteko aukera egongo da gaur, 18:00etatik 20:00etara. Zine saioen aurretik ere erosi ahaliko da, azken eguna hilaren 11 izango delarik. Saio guztiak ikusi ahal izateko bonua 13 euroren truke erosi ahaliko da, gaueko saioetarako bonua 10 euroren truke eta arratsaldeko saioetarako bonua ere 10 euroren truke. *Los condenados, Un novio para Yasmina, Polleke, Amerrika, Fraulein, Gertrud, Cheri, La carretera, Percy Jackson, Tiana y el sapo, Mi vecino Totoro, El hombre lobo, Invictus, Garbo: el espía, Up in the air, En tierra hostil* eta *Rompendientes* ikusi ahaliko dira martxoan.

'Stock and Braderie' ekimenean izen-ematea

Merkataritza » Apirilaren 10 eta 11n izango da; ohikoa baino prezio baxuagoan erosi ahaliko dira produktuak.

ERREDAKZIOA

Tolosako Merkataritza Elkarteak *Stock and Braderie in Tolosa* izeneko merkataritza jarduerari ari dira prestatzen. Apirilaren 10 eta 11ko asteburuan izango da, eta merkatariek soberakin produktuak eskaini ahal izango dizkiete bezeroei, ohikoa baino prezio baxuagoan.

Jarduera honek bi modalitate edukiko ditu, bere izenak adierazten duen bezala: Beotibar pilotalekuan izango den Stock azoka bate-tik, eta Braderie-a, bestetik. Azken hau, soberakin dauden produktuak dendako sarrera atearen parean horretarako egokitutako mahai batean eskaintzean datza. Komertzio guztientzat irekia dago, elkarrekin bazkide ez direnentzat ere bai. Parte hartu edo informazio gehiago nahi duenak Merkataritza Dinamizazio Bulegora dei dezake (943 675 224) edo tolosakomerzio@gmail.com era idatzi martxoaren 10a baino lehen.

Berdintasuna »

Atzotik ikusgai da Aranburu Jauregian 'Aurrez aurre' erakusketa; honekin lotuta hainbat ekitaldi izango dira datozen egunotan.

ERREDAKZIOA

Atzo inauguratu zen *Aurrez aurre* erakusketa. 23 emakume artista- lanak biltzen dituen bilduma. Estilo eta pentsamoldeen aniztasunaren isla dira Aranburu jauregian ikusi daitezkeen sormen lanak. Bestalde, *Aurrez aurre* ekimenarekin erakutsi nahi da artea bizia dela, eta espazioekin hautsi nahi da. Horregatik, erakusketarekin lotuta, datozen egunetan hainbat ekitaldi izango dira hiriko beste zenbait gunetan, tartean, hitzaldiak, tailerrak, mahai-inguruak eta performanceak egingo dira.

Udaleko berdintasun, gazteria eta kultura departamentuak, eskualdeko hainbat artistarekin elkarlanean aurrera eramandako egitasmoa da atzo aurkeztutakoa. Erakusketa artea gustuko duten horiei ez ezik, herritar orori dago zuzendua. Izan ere, bertan parte hartu duten artistek ez dute epel utziko ikuslea. Denek ere lan oso



Atzo goizean aurkeztu zuten egitasmoa Udaleko kultura, gazteria eta berdintasun sailekoek. E. EZEIZA

23 emakume artistaren lanik intimoenak ikusgai

intimoak, argiak eta adierazkorragin egin dituzte.

Aipatu bezala, 23 artistaren lanak ikusi daitezke. Hauetako asko Tolosaldekoak dira. Izan ere, artistak aukeratzeko garaian, honekin batera, kontuan hartu dituzten

ezaugarrietako batzuk izan dira, gazteak eta hasiberriak izatea.

«Emakumeak, artearen munduan baztertuak»

Josebe Iturrioz berdintasun teknika eta Ibai Luke *Lxuri* luze artistak

dira *Aurrez aurre* erakusketako komisarioak. Iturriozek hitzetan, «emakumea hainbat arlotan baztertua dago, esaterako, artean. Hori dela eta, toki bat eskaini nahi izan diegu beraien lanak erakusteko». Halaber, zerbait erakusteko

duenak, hil honetan zehar txoko bat izango du Aranburun. Bestalde, «erakusketa bat antolatzean, arduradun gehienei, gizonezko artistak etortzen zaizkie burura, eta honekin erakutsi nahi dugu, talentu handiko artista emakume ugari daudela» gaineratu zuten. *Aurrez aurre*ren, 23k parte hartu badute ere, hainbat eta hainbat kanpoan geratu dira, ezinezkoa baitzen denen lanak Aranburuko bi solairutan jartzea.

Emakumeen sormena historian zehar, bigarren mailako artearekin egon da lotuta, hau da, zeramika, jostuntza eta abarrekin.

Erakusketa irekia

Erakustokiak bi espazio eskaintzen ditu. Honela, horietako batean, nahi duen artistak bere artelanak erakutsi ditzake. Interesatuak bertara joan eta zintzilikatu ahal izango dute beraien artelana. Erakustokian zehar zenbait gune aldatkorak izango dira, eta zabalik egongo dira herritarrentzat. Honenbestez, esatekorik duten artistek areto bat edukiko dute beraien lanak jartzeko.

Aranburu jauregian bertan, artea egiteko eta lanak sortzeko aukera ere izango da. Aretoetako batean, hormak panel zuriekin estaltuta egongo dira, jendeak parte har dezan nor bere artelana zuzenean eta bertan sortuz. Paperak, gu-raizeak, margoak, kola... egongo dira hartu eta erabiltzeko.

» DATOZEN EGUNETAKO EKITALDIAK**Gaur, hilak 4**

■ **18:30.** Mahai-ingurua: *arte eta feminismoa*. Bertan parte hartuko dute Arakus (Montehermosoko zuzendaria) eta Lourdes Mendezek (Antropologian eta Artean katedraduna).

Bihar, hilak 5

■ **17:00.** Tailerra: *Kalean margotzen ondo pasatzen dit*. Carole Bieckick eskainiko du.

Etzi, hilak 6

■ **20:00.** HIGA antzerkia. Ene poltsa handia eta biok.

Hilak 15, astelehena

■ **18:30.** Afrika Mendebaldeko dantzak. Tolosako Jabekuntza Eskolako Dantza Afrikarren taldea.

■ **Ondoren.** *Umorearen artea* izenburupean, hitzaldia. Isabel Franc (Lola Van Guardia) idazlea izango da ekitaldi honetako hizlaria.

Hilak 16, asteartea



■ **16:30.** Tailerra: *Irudiak urbilena*. Ana Belen Jarrinek eskainiko du. Tailer honetan parte hartzeko kamera digital bat ekarri behar dute herritarrek. Berdin du formatoa eta kameraren kalitatea.

Hilak 17, asteazkena

■ **18:30.** Mahai-ingurua: *Praktika artistikoak - praktika feministak* izenburupean. Maria Mur (Artista eta Consonniko kidea) eta Estibaliz Sadaba (Artista eta Erreakzioa taldeko kidea).



Eskualdeko hainbat artistek hartu dute parte emakumea protagonista den erakusketa honetan: Eli Garmendia, Ixuri Luze, Susana Segurola, Vanesa Alzate, Ainitze Velaz, Izaskun Lazkano, Nagore Amenabarro, Izaro Altuna eta Landa Eremuko Emakumeek. ESTI EZEIZA



23 artista ezberdinek egindako margolanak, eskulturak, ikus-entzunezkoak eta abar ikusgai egongo dira Aranburu jauregian apirilaren 10a bitartean. E. EZEIZA

'Kote' sukaldaria Nazio Mailakorako sailkatu da

Zizurkil » Martxoaren 8an jokatu da V. Con Gusto Mudejar Txapelketa. Hamarren artean dago Abeletzeko sukaldaria.



'Tortibia de bacalao' pintxoarekin bigarren sailkatu zen Madridfusionean. HITZA

ERREDAKZIOA

Ostailaren 18an, V. Con Gusto Mudejar Nazional Mailako Txapelketa parte hartuko duten hamar sukaldariak aukeratu zituzten. Txapelketa, martxoaren 8an jokatu da eta hamar sukaldari horien artean, Zizurkilgo Abeletxe Jatetxeko Jose Luis Garcia sukaldaria aurkitzen da.

V. edizio honetan, inoiz baino sukaldari gehiagok eman dute izena. Guztien artean hamar sukaldari aukeratzearren lana, Aragoiko Ostalaritzako Eskola Nagusiak, Aragoiko Gastronomía Elkarte kideek eta baita Aragoiko Sukaldari Gazteen Elkarte kideek egin behar izan zuten.

Sailkatuen artean, Burgos, Soria, Sevilla, Zaragoza, Teruel eta Gipuzkoako ordezkariak daude.

'Menestra de cordero al momento'

Jose Luis Garcia gipuzkoarra izango da Gipuzkoako ordezkari bakarra. Txapelketa honetan, *Menestra de cordero al momento* platera

rekin lehiatu da. Platera hau prestatzeko, Zizurkilgo baratzetako eta artzaintzako produktuek erabili dituzte. Sukaldari gazteak, Gipuzkoa, bere tradizioak eta gastronomia asko maite ditu. Gure herriko baserriarrak errespetatzen eta beraien lana eta ahalegina bultzatu behar ditugula dio. Eta produktuekin «izugarriko platera prestatu daitezkeela».

Txapelketa hiru sari izango dira: lehenengo sailkatuak 6.000 euro, bigarrenak 1.000 euro eta olio lote bat eta hirugarren sailkatuen denak, labanen joko bat irabaziko ditu.



Ehundik gora txirrindularik parte hartuko du VII. Aiztondo Klasikoan. HITZA

VII. Aiztondo Klasikoa Zizurkildik, Asteasura

Txirrindularitza » Irteera 10:00etan izango da eta 136,6 kilometro egingo dituzte. Espainiako Kopako puntuagarria da.

ENERITZ MAIZA

Hilaren 7an igandea, 10:00etan emango zaio irteera VII. Aiztondo Klasikoari Zizurkilgo Goiko plazan. Afizionatuen mailako lasterketa hau antolatzen duten zazpigarren urtea da aurtengoa eta lasterketa gainera, Espainiako Koparako balagarria da.

Sei herri eta lau elkarte dira lasterketa hau antolatzen dutenak: Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo Udalak

eta Adunako Txulobi Elkarte, Asteasuko Aiztondo Elkarte, Villabonako Irrintzi Elkarte eta Zizurkilgo Urkamendi Elkarte.

Ramon Ayerza asteasuarra da antolatzaileetako bat eta berak azaldu digu, lau elkarteek, sei Udal horietan, sei urterako hitzarmena sinatu zutela. «Hitzarmen horren arabera, urtero, lasterketak irteera eta helmuga herri ezberdinetan izan behar zituen eta herri bakoitzak irteera bat eta helmuga bat izan ditu». Sei urtetako hitzarmena, pasa den urtean amaitu zitzaizkion, baina Ayerzaren esanetan, «oraindik berria sinatu ez badute ere, sinatzeaz daude».

Udalen laguntza izateaz gain, beste hainbat diru laguntza biltzen saiatzen dira antolatzaileak.

Irteera Zizurkildik eta helmuga Asteasura izango ditu

Dagoeneko 18 taldek baieztatu dute bertan izango direla. Ehundik gora txirrindulari elkartuko dira Zizurkilgo plazan elite eta sub-23en mailako lasterketan. Maila horretako lasterketarik garrantzitsuenen artean sailkatzen da. Espainiako Kopan, hamar lasterketa izaten dira eta Aiztondo bailaran egiten den hau hamar horietako bigarrena da.

Pasa den urteko Espainiako Kopan sailkatutako lehen 15 taldeak, behartuta daude, Aiztondo Klasikoan parte hartzea. Gainerakoan, 28 talde osatu bitartean, antolatzaileek gonbidapenak luzatzen dituzte. «Gonbidapen gehienak Euskal Herriko Txirrindulari Tal-

» VII. AIZTONDO KLASIKOA

Martxoak 7, igandea

■ **10:00etan.** Irteera Zizurkil Goiko plazatik.

■ **136,6 km.** Altzo bi aldiz eta Zizurkil-Adunatik bost aldiz pasatzen Alkizatik barrena Asteasuko plazan amaituko da 13:20 aldera.

■ **Taldeak.** Asfaltos Guerola-Valencia Terra l Mar, Supermercados Froiz, Cueva el Soplao Ayuntamiento de Tarragona, Andalucía-Cajasur, Caja Rural, Extremadura-Spiuk, Ceramicas Onda-Ecp, U.P. Valencia-Bancaja, Bidelan-Kirologi, Lizarte, Region de Murcia, Proyecto Cidi, Sansespiuk Seguros Bilbao, Cafemax, Azysa, Ciudad de Oviedo eta Ciudad de Lugo dira orain artean baieztatu dutenak.

Antolatzaileak

■ **Udalak.** Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkil.

■ **Elkarteak.** Adunako Txulobi, Asteasuko Aiztondo, Villanbonako Irrintzi eta Zizurkilgo Urkamendi.

deei egiten saiatzen gara» azaldu digu Ramon Ayerzak.

Gonbidatu dituzten talde guztien erantzunak ez dituzte oraindik baina antolatzaileak ziur daude: «partaidetza ona izango da».

136,6 kilometroko ibilbidea

Zizurkil Goitik abiatu eta Txaramatik barrena Altzorako bidea hartuko dute. Jarraian Ordiziara joan eta berriro Altzo igoko dute Alegia aldetik. 40 kilometro horiek egin ostean, Villabonara itzuli eta Asteasutik itzulia egin ondoren Adunarako bidea hartuko dute Zizurkildik barrena.

Villabona, Asteasu, Zizurkil Aduna ibilbidea bost aldiz errepikatu ostean, seigarren itzulian eta jada 119 kilometro eginak dituztela, Adunatik Villabonara jaitsi eta Anoetarako bidea hartuko dute. Jarraian Alkizara igoko dira eta bost kilometro baino ez zaizkie gerarutako Asteasuko helmugarako.

Laburrak

Abraham Olano kiroldegiko ikastaroak

ANOETA ● Abraham Olano kiroldegian azken hiru hileko ikastaroak prestatu dituzte. Aste Santuko oporrak eta gero, apirilaren 12an hasiko dira. Izen emate epea martxoaren 8an irekiko da Kiroldegiko abonatuak direnentzat, eta hilaren 15ean abonatuak ez direnentzat. Cycling, yoga eta patinajeko ikastaroak eskainiko dira; talde eta ordutegi ezberdinekin.

Batel Txapelketa parte hartzeko ikastaroa

ANOETA ● Herriko festetan, Batel Txapelketa parte hartu nahi duten koardila guztientzako ikastaroa antolatu dute. Taldeak, ahal dela, mistoko izatea eskatzen da. Izena, Itzuli tabernan eman behar da eta horretarako azken eguna, martxoaren 15a izango da. Bertan parte hartzea animatu nahi dituzte guztiak.

Emakumeen Eguneko afaria hilaren 12an

LARRAUL ● Emakumeen Nazioarteko Eguneko afaria hilaren 12an egingo dute. Herriko Ostatuan bertan izango da 21:00etan eta izena emateko 943 69 39 30 telefono zenbakira deitu beharko da. Horretarako azken eguna martxoaren 8a izango da eta 25 euro ordaindu beharko da.

Gaur da afarirako txartelak erosteko azken eguna

ALEGIA ● Hilaren 6an, Kultur etxean Emakumeen Eguneko afaria egingo dute 21:00etan. Entsalada epe-la, onddo budina, legatza txangurroz beteta, postrea eta kafea izango dira. Txartelak, 25 euro balio du eta kultur eta kirol etxean daude salgai gaur arte. Afaria eta gero dantalzaldia egingo da eta zerbait morea eraman beharko da.

Emakumeen Gomazko Paletako azken jardunaldia etzi

Tolosa » Kutxa Sariko finala Beotibar frontoian izango da 18:00etatik aurrera; Arozena lizartzarra ariko da.

ERREDAKZIOA

Etzi, hilak 6, jokatuko dira Tolosako Beotibar pilotalekuan 2010eko Frontoi Motzeko Emakumeen Gomazko Paletako Kutxa Sari Nagusiko 3. eta 4. postuak eta baita final handia ere. Finalean Nagore Arozena lizartzarra ariko da.

Beotibarreko jaialdian argituko da zein izango den edizio honetako bikote garaila, eta, baita gainerako postuetan nortzuk sailkatuko diren ere. Izan ere, final handiaren aurretik podiumeko koskarik baxuenera nortzuk igoko diren jakingo dugu, 3. eta 4. postuko partida izango baita jaialdiko lehenengoa. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da. 3. eta 4. posturako norgehiagoka jokatuko duten pilotarien artean azpimarratzekoa da Maite Ruiz de Larramendi atzelari eulatearrak primeran dakiela zer nolakoa den partida hau. Aurreko bi edizioetan jokatu izan du eta hirugarren postua ere etxeratu izan du. Aurreko koadroetan kide izango duen Maika Elgueazabalek bi txapel ditu aurreko bietan, baina aurtan ezin izango du balentria

Ez dago favorito garbirik 3. eta 4. postuetarako; txapelketan paretsu ibili dira bi bikoteak

hori errepikatu. Hala ere, oso ondo ulertzen dute elkar bi gorriek eta bikote ona eta orekatua osatzen dute. Urdineki dagokien bezala, berriz, txapelketa ondo hasi bazuten ere, azken bi jardunaldietan ez zaizkie gauzak espero bezain ondo irten. Hori dela eta, arantza hori aterata eta

euren benetako joko-maila erakusteko gogo biziz kantxaratuko dira Patricia Espinar eta Claire Bordagaray. Beraz, favorito argirik gabeko partida izango da jaialdiko aurrenekoa.

Finala


Finala izango da ikusleei zirrara eta urduritasun puntu bat piztuko dien partida ziur aski.

Pilotari bakoitzak bere animatzaile taldetoxa eramango du; beraz, giro ona behintzat ziurtatuta egongo da. Finalean ariko diren lau pilotaririk hirurentzat euren bigarren finala izango da.

Amaitzeko Serrek Itsaso Urkizu berastegiarrarekin jokatu zuen lehen edizioan, Susana Munetak Claire Bordagarayekin iaz eta Nagore Arozena lizartzarrek Maika Elgueazabalekin. Amaitzeko Serrek hirurentzat, berriz, ezker hormako goi-mailako sari honetako lehena izango da.

Gorriek jokaturiko aurreko finalak galdu egin zituzten eta Arozena, berriz, irabazi egin zuen iaz, Muneta-Bordagarayren aurka. Baliteke iazko finala bezain gogorra, parekatua eta lehiatua izatea aurtengoa ere; orduko hark ordu eta laurdenetik gora iraun zuen. Hala ere, eta nahiz eta aurrekari bezala hartzea ez den oso komenigarria, ligaxkako lehen jardunaldian, elkarren aurka jokatu zutenean, Muneta-Serre bikoteak aise irabazi zuen, 30-20. Orduetik, ordea, hilabete igaro da eta bikote urdinak nabarmen egin du gora txapelketak aurrera egin ahala, batez ere Amaia Etchelecurren hobe-kuntzari esker. Honenbestez, pilotakada askoko partida luzea izatea espero da.

Beotibarrera inguratzen denak ez du damu izpirik izango, partida politak ikusiz gozatzeaz gain, goi-mailako paletariak etxe ondoan ikusteko hain aukera paregabeberik ez baita izaten egunero.



Partida bikainak ikusi ahal izan dira txapelketan zehar, irudietan finalerdietako bi partidak. HITZA

Azken hiru finalak Tolosan izan dira

Txapelketako arduradunek, goi-mailako lehiaketa hau antolatuta ahal izateko Kutxaz gain, Alegia,

Finaleko partida pilotakada askokoa izango dela espero dute antolatzaileek

Zumarraga, Urretxu, Bergara eta Tolosako udalen babes eta laguntza eskertu nahi izan dute.

Era berean, Tolosako Udalak «hasiera-hasieratik jardunaldi bertan antolatzeko asmoa» agertu duela ere nabarmendu dute. Gai-

nera, goi-mailako txapelketa hau antolatu den hiru edizioetan finala bertan jokatu dela ere gogoratu dute.

Aurreko bi urteetan Tolosako Beotibarreko harmailak goraino bete izan direla ere nabarmendu dute antolatzaileek.

» 3. ETA 4. POSTUAK ETA FINALA

■ **Tokia, eguna eta ordua.** Tolosako Beotibar frontoian larunbatean 18:00etan.

■ **3. eta 4. postua.** Elgueazabal-Ruiz de Larramendi eta Espinar-Bordagaray.

■ **Finala.** Muneta-Serre eta Etchelecu-Arozena.

Zakurrak lotuta eramateko eta euren kakak jasotzeko eskatu du Udalak

Ibarra » Neurri hauek betetzen ez dituztenek udal ordenantzetan ezarritako zigorra jasoko dute.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak zakur jabe guztiei gogorarazi nahi die pertsonak dabiltzan lekuetan hauek lotuta eramane behar dituztela eta bide publikoetan kaka eginez gero ere jaso egin behar dituztela.

Halaber, «edozein arau-hauste animaliak edukitzeko eta babesteko dagoen udal ordenantzetan ezarritakoaren arabera zigortuko dela» jakinarazten du.

Udalak zakur jabe guztien «ardura» eskatu du, horrela «eremu publikoak garbi mantentzeko eta duela gutxi gertatu zen bezalako arrisku egoerak ekiditeko, izan ere, semearekin zihon aitarenerorke ta eragin zuen txakur kaka batek. Joan den otsailaren 22an, Euskal Herria kaleko 13. zenbaki parean, bizilagun batek txakurraren kaka utzi zuen espaloian, eta hortik barrena bere semearekin zihon pertsona batek zapaltzerakoan irristatu eta biak lurrera joan ziren», argitu du Udalak.

Udal ordenantzaren 15. eta 16. artikulua

Aipatu bezala, udal ordenantzaren 15. artikulua zakurrak bide publikoetan nahiz pertsonak dabiltzan beste lekuetan lotuta, eta arriskuak izanez gero, dagokien muturrekoarekin eramateko betekizuna ezartzen du.

Honekin batera, aipatu udal ordenantza horren 16. artikulua zakurraren jabea edota zakurra kalera ateratzen duena egiten ditu kakak jasotzearen arduradun eta baita erantzule ere. Honek duela-rik «edozein hiritarri arrisku egoerak ekiditeko eta udalerriko kaleak nahiz berdeguneak garbi mantentzeko» ardura.

Kasu batean zein bestean, «arau-hausta indarrean dagoen arautegiak ezartzen duenaren arabera zigortuko da».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Haur eta gurasoek zuhaitzak landatu zituzten herenegun Urteagan. ARESOKO GURASO ELKARTEA

Guraso Elkarteak 30 lagun inguru elkartu ditu Urteagan Zuhaitz Eguna ospatzeko

Areso » Eremua eta zuhaitz-landareak Udalak jarri zituen; haurrek eta gurasoek eguna merienda batekin amaitu zuten.

ERREDAKZIOA

Aresoko Guraso Elkarteak joan den urtean bezala aurten ere Zuhaitz Eguna antolatzea erabaki zuen. Esan eta egin. Ikasleak eskolatik atera eta zuhaitzak landatzera joan ziren haurrek eta gurasoak herenegun, guztira 30 lagun inguru.

Zuhaitzak landatu ostean me-

riendatxoa egin zuten, mendian bertan. Edariak Guraso Elkarteak

Haurrak aitzur banarekin joan ziren Urteagara eta zuhaitz bana landatzeko aukera eduki zuten

jarri zituen. Giro ederra topatu eta sortu zuten aresoarrek, nahiz eta haize fina izan zuten lagun.

Guraso Elkartetik esan dutenaren arabera, datorren urtean, agian, landaketa egin beharrean bi urte hauetan landatutako eremuaren garbiketa eta zainketa egingo dute.

Aresoko Udalaren laguntzarekin

Zuhaitz Eguna leku egokian ospatzeko Udalak Urteagan prestatu zuen eremua, ia landatu gabe geratu zen zatian. Horretaz gain, zuhaitzak ere Udalak jarri zituen, gaitainondoa eta haritzondoa.

Urteagara kotxez hurbildu ziren aresoarrak. Haur bakoitzak bere aitzurra eraman zuen eta guztiak eduki zuten zuhaitz bat landatzeko aukera.

Orain bizitzan, liburu bat idaztea eta haurtxo bat edukitzea besterik ez zaie falta, beti ere Jose Marti olerkari kubatarraren arabera.

Ibarratik Xiberoara joango dira

ERREDAKZIOA

Haitzetan Raju eta Bai Euskal Herriari herri ekimenak ikurrina eskuetan, Eukal Herria ezagutzen jarraitzen dute. Iragan asteburuan, Lapurdin ibili ziren, Sara eta inguruko kobazuloak ezagutzen. Antolatzaileen esanetan orain arteko irteerarik «arrakastatsuen» izan zen Lapurdikoa, guztira 40 lagunetik gora elkartu baitziren, «haur uholdea» barne. Erantzun hau ikusita «gogotsu» antolatu dute hurrengo irteera.

Izena emateko aukera

Xiberoara hilaren 13an, 08:00etan irtena dira Ibarako plazatik. Gaua Santa Engrazian igaroko dute. «Xiberoan mendiaz gain bertako kultura ezagutzeko aukera ere



Ibarratik jende ugari joan zen Lapurdira iragan asteburuan. HITZA

edukiko dugu». Horretarako hainbat ekitalditara joateko asmoa azaldu dute ibartarrek. «Larunbatean kantaldi batean egongo gara

eta igandean Maskaradan». Izena emateko edo informazio gehiagorako 652-71 58 00 telefonora deitu behar da.

Eskualdeko 6 eskiatzaile Polonian aurkitzen dira

ERREDAKZIOA

Afizioak bultzatuta eskualdeko sei eskiatzaile Polonian aurkitzen dira. Bertan bi karrera korrituko dira asteburuan, iraupen luzeak biak ere. Igandekoa adibidez 50 kilometrokoa izango da, skating edo patinatzaile moduan. Larunbatekoa ere iraupen luzeak izango da, baina kasu honetan modu klasikoan ibiliko dira eskiatzaileak. Lagun talde moduan joan dira

Poloniar ondorengo eskiatzaileak: Rosa eta Kakun Etxeberria, Jose Luis Jauregi, Begoña Iraola eta Manu Elorza tolosarrak eta Berastegin bizi den Mertxe Iriberrri. Espedizioa beste hiru euskaldunekin osatu dute eskualdekoek.

Gehienek karrera batean parte hartuko baldin badute ere, taldean badira bi probak egiteko asmoz joan direnak. Astelehen gauetan itzuliko dira Euskal Herrira.

TXOTX

Rezola Tel.: 943 556 637 Astigarraga
Ipintza baserria - Savito Zaharra www.rezolasagardotegia.com

Oialume Zar Tel.: 943 552 938 Astigarraga
Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)

Akelenea Tel.: 943 333 333 Astigarraga
Oialume bidea 57 www.akelenea.com

Gurutzeta Tel.: 943 552 242 Astigarraga
Oialume bidea 63 (sarrera Ergoblatik) www.gurutzeta.com

Lizeaga Tel.: 943 468 290 Astigarraga
Gartziategi baserria, Martxene pasalekua, 139

Mina Tel.: 943 555 220 Astigarraga
Txerrikieta pasalekua

Gartziategi Tel.: 943 469 674 Astigarraga
Donostia Astigarraga bidea, 5,8km. www.gartziategi.com

Elutxeta Tel.: 943 556 981 Urnieta
Oztaran auzoa, 34 - Elutxeta baserria

Larre Gain Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani
Larre-Gain baserria, Erelozu auzoa

Otsua-enea Tel.: 943 556 894 Hernani
Osiñaga auzoa

Iparragirre Tel.: 943 550 328 Hernani
Osiñaga auzoa, 10 www.iparragirre.com

Urdaira Tel.: 943 372 691 Agnaga-Urtebil
Urdaira baserria

Arratzain Tel.: 943 366 663 Arratzain zahar baserria Urdabil
www.agroturismoarratzain.com / info@agroturismoarratzain.com

Urbitearte Tel.: 943 580 119 Ataun
Ergoiena auzoa

Ohiarte Tel.: 943 501 013 Zeran
Ohiarte baserria

Isastegi Tel.: 943 652 964 Tolosa
Aldaba Txiki auzoa www.isastegi.com isastegi@isastegi.com

Begiristain Tel.: 943 652 837 Ibarategieta
Ibarnoz baserria

Zabala Tel.: 943 690 774 Aduna
Garagarza baserria (Golburu auzoa) www.zabalaregi.com info@zabalaregi.com

Sarasola Tel.: 943 690 283 Antsoa
Bebalera auzoa

Ola Tel.: 943 623 130 Irua
Mezka auzoa, 102

Lindurrenborda Tel.: 948 637 212 Lesaka
Nabaz auzoa, 8

DIEZ Autobusak

Autobusak eta ibilgailuak zerbitzu berria

Maria eta Maribelak

Informazioa, biletak, bilaketak, enpresak...

Munduko helburua, 241 Tel.: 943 28 84 16 / Fax: 943 27 11 37 / 2012 DONOSTIA

Posta elektronikoa: malala@autocaresdiez.net



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Zinema

■ **Tolosa.** *Los condenados* filma gaur Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

■ **Tolosa.** Zinema bonuak erosi ahal izango dira gaur Leidor areto-ko leihatilan.

Mendi irteerak

■ **Villabona.** Martxoaren 28an Aizkardiko ibaldia izango da. Izena ematea dohainik da. Informazio gehiagorako www.aizkardi.com edo ibaldid@aizkardi.com helbidea.

Hitzaldia

■ **Gaztelu.** Dependentzia Legeari buruzko hitzaldia gaur 17:00etatik aurrera Erroizpe azpiko kirol eta kultur elkartearen Sarrera librea eta doakoa izango da. Hitzaldian arloko laguntza ekonomikoetako buruzko informazioa banatuko da, eskera egiteko bideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioaren inguruko argibideak emango dira eta zain-tzaileen kotizazio eskubidea ere izango dute hizpide, besteak beste.

■ **Alegia.** *Autoestimua* izeneko hitzaldia bihar eta 12an 14:15etik 16:00etara Eskolako patioan liburutegian.

Ipuin kontalaria

■ **Tolosa.** Kontalari bat ariko da gaur ipuinak kontatzen 18:00etan Haur Liburutegian (Errotan).

■ **Tolosa.** Kirmen Uribe eta Mikel Urdangarinen *Internet kafe* emanaldia bihar Topic-en 20:30ean.

Musika

■ **Tolosa.** Agoraphobia eta Elbereth musika taldeen emanaldia bihar Bonberenean 22:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943-67 06 48.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Kontzertu didaktikoa pianoarekin

VILLABONA Pasa den astelehenean ekitaldi berrizalea izan zuten Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako LH-ko ikasleek. Izan ere, Kutzako Gazte-txoen Klubak eskaintzen dituen kontzertu didaktikoe-

tan parte hartzeko aukera izan zuten Xabier Lizaso piano-jotzaile zarautzarraren eskutik. Gazteak gustura aritu ziren pianoaren laguntzarekin ariketa desberdinak egiten. HITZA

A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P,K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia: